GORBEIALDEKO
KUADRILLA
( *ARABA* )

CUADRILLA DE
GORBEIALDEA
( *ÁLAVA* )

# 2019-2023 ALDIRAKO GORBEIALDEKO KUADRILLAKO BATZARRA ERATZEKO AKTA

Zuiako Udaleko Bilkura Gelan, Murgian, 2019ko urriaren 8an, 18:35ean, Gorbeialdeko Kuadrillako Batzarra eratzeko bilera egin da, aldez aurretik Arabako Batzar Nagusietako lehendakariak deialdia egin ondoren, Kuadrillei buruzko azaroaren 20ko 63/89 Foru Arauaren 21. artikuluak agindu bezala.

Batzarra eratzeko bileraren lehendakaria Arabako Batzar Nagusien lehendakaria izango da, hots, Pedro Ignacio Elosegui González de Gamarra jna., eta honakoen laguntza izango du: Eva María Jiménez Alcudia andrea, Arabako Batzar Nagusien Mahaiko lehenengo idazkaria, Jose Ramon Garcia Plazaola jauna, Arabako Batzar Nagusietako Idazkaritza Orokorreko letradua, eta Juan María Ezkurdia Salazar jn., Gorbeialdeko Kuadrillako gerente-letradua Aipatutakoekin batera, honakoak ere badaude: Xabier Álvarez de Arcaya Fernández de Landa jauna eta Itziar Ircio Vea-Murgia andrea, Gorbeialdeko Kuadrillako jarduneko lehendakaria eta lehendakariordea, hurrenez hurren.

Arabako Biltzar Nagusien lehendakariak eman dio hasiera bilkurari, eta Gorbeialdeko Kuadrillako gerente-letraduak Kuadrilla osatzen duten udalek aukeratutako batzarkideak aipatu ditu,

# ACTA DE LA SESIÓN CONSTITUTIVA DE LA JUNTA DE CUADRILLA DE GORBEIALDEA 2019-2023

En el salón de reuniones del Ayuntamiento de Zuia, en Murgia, siendo las 18:35 horas del día 8 de octubre de 2019, se celebra sesión constitutiva de la Junta de Cuadrilla de Gorbeialdea, previa convocatoria efectuada por el presidente de las Juntas Generales de Álava, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 21 de la Norma Foral 63/89, de 20 de noviembre, de Cuadrillas.

Preside la sesión constitutiva D. Pedro Ignacio Elosegui González de Gamarra, presidente de las Juntas Generales de Álava, asistido por Dª. Eva María Jiménez Alcudia, secretaria primera de la Mesa de las Juntas Generales de Álava, por D. José Ramón García Plazaola, letrado de la Secretaria General de las Juntas Generales de Álava y por D. Juan Mª Ezkurdia Salazar, gerente-letrado de la Cuadrilla de Gorbeialdea. Acompañan a las personas citadas el presidente y la vicepresidenta en funciones de la Cuadrilla de Gorbeialdea, D. Xabier Álvarez de Arcaya Fernández de Landa y Dª Itziar Ircio Vea-Murguia, respectivamente.

El sr. presidente de las Juntas Generales de Álava da inicio al acto, y el gerente-letrado de la Cuadrilla de Gorbeialdea va nombrando a los junteros y junteras designados por los ayuntamientos

GORBEIALDEKO KUADRILLA
CUADRILLA DE GORBEIALDEA

abizenaren araberako ordena alfabetikoari jarraiki. Aipatutakoak mahaira gerturatu dira eta beren egiaztagiria eta Nortasun Agiri Nazionala erakutsi dute. Ondorengo pertsonak akreditatu dira batzarrerako:

que integran la Cuadrilla, por orden alfabético de sus apellidos, quienes se acercan a la mesa y muestran su credencial y su Documento Nacional de Identidad, acreditándose las siguientes personas:

**1.- ALONSO MORAZA, JUAN CARLOS (Zuia Bai - Zuia)**

**2.- ALTUNA UGARTE, LIERNI (EH-Bildu - Aramaio)**

**3.- ÁLVAREZ DE ARCAYA FERNÁNDEZ DE LANDA, XABIER (EH-Bildu - Urkabustaiz)**

**4.- ARRANZ RUIZ DE AZUA, Mª ARANZAZU (EH-Bildu - Arratzua-Ubarrundia)**

**5.- ELORZA BERGARA, INMA (EH-Bildu - Zuia)**

**6.- ETXEBARRIA ASTONDOA, ITXASO (EH-Bildu - Zigoitia)**

**7.- FERNÁNDEZ DE GAMARRA EGURROLA, CÉSAR (EH-Bildu - Legutio)**

**8.- GANZABAL ZURBITU, Mª BEGOÑA (EAJ-PNV - Urkabustaiz)**

**9.- GORBEÑA GARCÍA, JAVIER (EAJ-PNV - Zigoitia)**

**10.- GUTIÉRREZ URKIZA, UNAI (EH-Bildu - Zuia)**

**11.- IBAÑEZ GORROTXATEGI, ENEKO (EAJ-PNV - Legutio)**

**12.- IRCIO VEA-MURGUIA, ITZIAR (Zuia Bai - Zuia)**

**13.- LÓPEZ DE BERGARA ASTOLA, IÑAKI (EH-Bildu - Legutio)**

**14.- OTSOA ERIBEKO LANDA, AGUSTÍN (EH-Bildu - Zuia)**

**15.- PEÑA OROBENGOA, JUAN ANTONIO (EAJ-PNV - Aramaio)**

**16.- PÉREZ DE OBANOS OYARBIDE, PILAR (EH-Bildu - Zigoitia)**

**17.- TELLAETXE ZARANDONA, ESTÍBALIZ (EH-Bildu - Urkabustaiz)**

Gorbeialdeko Kuadrillako Batzarra osatzen duten 19 batzarkideetatik 17 akreditatu dira. Behin hori eginda, Batzar Nagusien lehendakariak, 63/89 Foru Arauaren 25. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Batzarra behar bezala eratu dela adierazi du.

Habiéndose acreditado 17 junteros y junteras del total de 19 que integran la Junta de Cuadrilla de Gorbeialdea, el presidente de las Juntas Generales, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 25 de la Norma Foral 63/89, declara válidamente reunida la Junta.

GORBEIALDEKO KUADRILLA CUADRILLA DE GORBEIALDEA

Jarraian, Eva María Jiménez Alcudia andreak hartu du hitza, eta Arabako Kuadrillen 63/89 Foru Arauko artikuluak, saio honi eta Kuadrillako Batzarraren lehendakaria eta lehendakariordea aukeratzeari buruzkoak, irakurri ditu.

A continuación, toma la palabra la sra. Eva María Jiménez Alcudia, quien da lectura a los artículos de la Norma Foral 63/89, de Cuadrillas de Álava, relativos a la presente sesión y a la elección de presidente/a y vicepresidente/a de la Junta de Cuadrilla.

Ondoren, kargu horiek haukeratu dira aldi berean, arestian aipatutako foru-arauaren 18. artikuluan aurreikusitako sistemarekin bat etorriz. Horretarako, bertaratutako batzarkideetako bakoitzak izen bakarra idatziko du boto-txartelean. Boto gehien lortzen duten biak, hurrenez hurren, Batzarreko lehendakari eta lehendakariorde hautatuko dira.

Seguidamente se procede a la elección de dichos cargos, de acuerdo con el sistema previsto en el artículo 18 de la precitada Norma Foral. Para ello, cada uno de los junteros y de las junteras presentes deben escribir un sólo nombre en la papeleta de votación, resultando elegidos presidente/a y vicepresidente/a, por su orden, las dos personas que obtengan el mayor número de votos.

Ondoren, bozketa egin da. Arabako Batzar Nagusien mahaiko idazkariak bertaratutako batzarkideak deitu ditu, ordena alfabetikoaren arabera, eta hauek beren boto-txartela sartu dute hautestontzian.

A continuación, se procede a efectuar la votación, llamando el gerente-letrado de la Cuadrilla a los junteros y junteras que se han acreditado, quienes depositan su papeleta en la urna colocada al efecto.

Bozketa amaiturik, botoak zenbatu dira. Emaitza honakoa izan da:

Terminada la votación se procede al escrutinio de los votos emitidos, siendo el resultado el siguiente:

OTSOA ERIBEKO LANDA, AGUSTÍN jna. ............................ 11 boto / votos.
GANZABAL ZURBITU, BEGOÑA and. .................................... 6 boto / votos.

Bozketaren emaitza ikusita, Arabako Batzar Nagusien lehendakariak, Pedro Ignacio Elosegui González jaunak, AGUSTÍN OTSOA ERIBEKO LANDA jauna izendatu du Gorbeialdeko Kuadrillako lehendakari eta BEGOÑA GANZABAL ZURBITU anderea lehendakariorde. Horiei eskatu die, gainera, lehendakaritza-

Dado el resultado de la votación, el presidente de las Juntas Generales de Álava, D. Pedro Ignacio Elosegui González, proclama como presidente de la Junta de Cuadrilla de Gorbeialdea a D. AGUSTÍN OTSOA ERIBEKO LANDA y vicepresidenta a Dª. BEGOÑA GANZABAL ZURBITU, a quienes se les ruega que ocupen sus

GORBEIALDEKO KUADRILLA CUADRILLA DE GORBEIALDEA

mahaian beren karguez jabetu daitezela eta hauek halaxe egin dute.

Lehendakari eta lehendakariorde berriak zoriondu ondoren, eta hautetsientzako eskerronezko hitz batzuen ondoren, Arabako Batzar Nagusien lehendakariak, Gorbeialdeko Kuadrillako Batzarra eratutzat eman du, eta bilkura amaitutzat eman du, goiburuan adierazitako datako arratsaldeko seiak eta berrogeita hamar minutuan.

puestos en la Mesa presidencial, lo que efectúan.

Después de felicitar al nuevo presidente y a la nueva vicepresidenta por sus nombramientos, y tras unas palabras de agradecimiento a las personas asistentes al acto, el presidente de las Juntas Generales de Álava declara constituida la Junta de Cuadrilla de Gorbeialdea y da por terminada la sesión, siendo las dieciocho horas y cincuenta minutos del día indicado en el encabezamiento.

GORBEIALDEKO KUADRILLA
CUADRILLA DE GORBEIALDEA